

MIGUEL ECHAURI

Miguel Echauriren (Iruña, 1927) lehen irakasle artistikoa Javier Ciga izan zen. 18 urte zituela, Kubara joan zen, eta Estatu Batuetan hainbat aldiz egon ondoren, 1952an Uruguain ezarri zen; han, pintura landu zuen. Giro artistiko ezberdinak ezagutu zituen, eta bere estiloa, pertsonala eta autodidakta, garatzen hasi zen. Estilo horri esker, hainbat sari eskuratu zituen Uruguako areto ofizialetan. 1964. urtean, Iruñara itzuli, eta Fermin anaiaren laguntza izango du; anaia galeristarekin batera ezin bananduzko tandem osatuko du.

Ordutik aurrera, apaindura gutxiko estiloa jorratuko du, garrantzitsua, abstrakziotik gertu dagoena, haren generazioko pintore informalisten ildotik, garrantzi handiko irudi femeninoetan oinarritua.

1984. urtean, berriz, bilakaera estetiko berriari hasiera emango dio, eta lanetan arrokak sartuko ditu; hots, haren pinturaren ezaugarri bereizle bilakatuko dira. Paisaiaren eta natura hilaren generoetan oinarrituko da, lurraren koloreak eta argi-ilunen kontrasteak kontuan hartuaz.

Miguel Echaurik ehun erakusketa baino gehiagotan hartu du parte. Haren lanak 30 museo, zentro edo instituzio baino gehiagotan ikus daitezke. 2009an, Nafarroako Museoak haren lanaren erakusketa antologikoa egin zuen.

2010. urtean, Miguel Echauri Fundazioa abian jarri zen, Iruñeko zentro historikoan haren lana biltze aldera.